18. Hiri-funtzioak: Zonakatzea

1. Ebenezer Howardek 1898an lorategi-hiriaren oinarri teorikoak ezartzen ditu. Zonakatzearen aurrekarietako bat izan daiteke: zentruan ekipamendu-eraikinak daude, berdegune batez inguratuak; hurrengo eraztunetan, etxebizitzak, hiribide zabal baten inguruan; azken eraztunetan, lantegiak eta nekazal lurrak. Lorategi-hiri bakoitzaren hazkundea 32.000 biztanletan mugatzen zuen, 2.400 ha-ko azaleran (d = 13 etxe/ha inguru).
2. *New Town* delako hiri-berriak, Bigarren Mundu Gerra ostean. Harlowen kasua (60.000 biztanle). Bertan ez da zonakatze erradikala egiten. 10.000 biztanleko auzuneetan zatitzen da hiria, bakoitzean gune zibiko bat eta eskola bat antolatuz (*hirien hiria* kontzeptua jarraitzen dutela esan daiteke).
3. Industria-hiri ez eraikia, Lyon inguruan, 1901-1917 (Tony Garnier). *Beaux-Art* konposizio akademikoa (simetria partzialekin) eta industrializazioaren eraginpeko zonakatzea uztartu zituen. CIAMen zonakatzearen aurrekaria izan daiteke. Gune zahar baten inguruan kokatzen da, hura ikutzen ez delarik, gerriko berde batez inguratzen eta babesten dela. Ez zeuden eraikin militar edo erlijiotsurik. 3 zonalde nagusi proposatzen zituen, modu independientean hazi zitezkeenak:
    - Bizitegigunea. Eskema lineala du (luzea eta estua, garraioan oinarritzen dela), hiribide zabal baten inguruan. 150 x 30 metroko etxe-irlak, 15 metroko zerrendetan banatuak. Bertan, familiabakarreko etxe isolatuak, familiabikoak eta ilara-etxeak daude, lorategiak publikoak direlarik (Garnier komunista zen). Erdigunean ekipamendu publikoak daude.
    - Industriagunea. Etxebizitzetatik aldenduta, tartean gerriko berde bat dagoelarik. Garraioak gertu ditu (trenbidea zein ibaia).
    - Ospitalegunea, hilerria eta hiltegiak, goikaldeko zonan, ondo aireztatuak. Etxeen eta industrien artean. (Lyonen, geroago ospitale-hiria egingo zuen, *Edouard Herriot* ospitalea, alegia).
4. CIAM *Arkitektura Modernoaren Biltzar Internazionalak*, 1928-1956. 1933an Atenasko Agiria argitaratzen dute. Bertan hiriak izan behar dituen lau funtzioak eta guneak zehazten dituzte: Bizitokia, lantokia, aisialdi guneak eta zirkulazio guneak.
    - Ville Radieuse, 1928-1946 (Le Corbusier). Zonakatzearen erakusgarria.
5. Brasilia, Brasilgo hiriburu berria: Juscelino Kubitschek (Brasilgo gobernuko presidentea), Israel Pinheiro (NOVACAP-Companhia Urbanizadora da Nova Capital-eko presidentea eta hiri berriaren alkatea), Lucio Costa (hirigintza plangintza) eta Oscar Niemeyer (eraikin garrantzitsuenen arkitektoa).
    - Kokalekuaren hautaketa: 1955. Barnealdean (erabaki politikoa zona hori ekonomikoki suspertzeko), 1.200 metroko garaieran, kostaldetik 900 km-ra.
    - Lanen hasiera: 1956 (aireportua).
    - Konkurtsoa: 1957.
    - Brasiliako inaugurazioa: 1960.
    - UNESCOren ondare mundialaren zerrendan izendatua: 1987.
    - Gaur egungo biztanleria: 600.000 biztanle (14 km. luze), gehi 1.400.000 biztanle hiri-sateliteetan. *Superquadra* bakoitzean (90 daude) 2.500-3.000 biztanle (neurriak: 280x280m). *Superquadra* gehienetan 6 solairuko 11 eraikin daude, konposizio ezberdinak sortuz (Clarence Perryren "auzune-unitatea"rekin alderatzea, 1939: erradioa mila ¼, 400 m inguru, 5 minutu oinez).
    - "Oscar Niemeyer. Bere gizaldiarekin konprometitutako arkitektoa" dokumentala, 2000. urtekoa, 60 min (Brasiliari buruz 18 min), Marc-Henri Wajnberg-ek zuzendua, 13 sari lortu ditu.